

1- IKUSI AURRETIK

1.1 Pantailan ala paperean?



Erantzun galderei:

1.- Nola ikasten/irakurtzen duzu zuk? paperean ala pantailan?

Paperean irakurtzen dut beti.

Pantailan: tabletan, ordenagailuan edo e-book batean.

2.- Zergatik?

Papera ukitu, eskuetan hartu behar dut.

Erosoa da pantailan ikustea.

Ez da papera gastatzen, eta tinta ere ez.



Komentatu erantzunak lagun batekin.

2- IKUSI BITARTEAN

2.1. Kopiagailuan



Ikusi bideoaren lehen zatia (lehenengo

65 segundoak) eta esan baieztapenak EGIA ala

GEZURRA diren:



Baieztapena	Egia	Gezurra
1.- Amaiak Josuri eskerrak ematen dizkio apunteak utzi dizkiolako.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2.- Normalean, Amaiak uzten dizkio apunteak Josuri.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.- Amaia astean bitan ez da klasera joaten.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4.- Amaiari apunteak fotokopiatzea gustatzen zaio, paperetik ikastea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5.- Josuk kopiak egiten ditu, papera gustatzen zaio.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

2.2. Josuk ala Amaiak?



Ikusi bideoaren bigarren zatia (00:66tik aurrera) eta aukeratu nork esan duen esaldi

bakoitza, Josuk ala Amaiak.



Nork esan du?	Josuk	Amaiak
1.- Ez dizut ezer esango!	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2.- Ez zaitez astuna izan!	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.- Mutil-laguna daukazu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4.- Imajinazio handia daukazu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5.- Titiko umea ematen duzu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6.- Zergatik egiten duzu kale fakultatean?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>



Adostu erantzunak lagun batekin.

2.3. Amaiaren mutil-laguna

 Bideoan ikus-entzun duzunaren arabera, zein da bi hauetatik aukera zuzena?

- A. Amaiak mutil-laguna dauka. Bi metroko mutil mardula da, aizkolaria.
- B. Amaiak ez dauka mutil-lagunik.

  Adostu erantzuna lagun batekin.



3- IKUSI ONDOREN

3.1 Jarri arreta hizkuntzan

 Gogoratu elkarrizketaren bukaeran Josuk askotan errepikatu duen esaldi hau:

Pertsona batek zerbait badauka, **NORK** kasuan deklinatuko dugu beti pertsona horren izena.

*Amaia**K** (Subjektua, NORK kasuan) senargaia dauka/du*

*Amaia**K** begi marroiak dauzka/ditu*

*Josu**K** andregaiak dauka (Lide)*

*Josu**K** irudimen handia dauka/du*

NORK kasua (ergatiboa) **-(e)K** bukaera hartzen du pertsona izenekin, bukaeran bokala edo kontsonantea den ikusi behar da **-K** ala **-EK** jartzeko.

Adib: Amaia**K**/Imanol**EK**/Mikel**EK**/Yolanda**K**

Amaiak nobioa dauka

 Osatu esaldi hauek eta erabaki pertsona-izenei, \emptyset , **-k** ala **-ek** bukaera jarri behar zaien:

- 1.- Mikel.....ile beltzarana dauka, baina bere arreba Miren..... ilehoria da.
- 2.- Josune.... oso txikia da. Jaione...., ordea, oso emakume altua da.
- 3.- Xabi.... oso umore txarra dauka beti astelehen goizean.
- 4.- Itziar... soineko asko dauzka, dantzaria da-eta.
- 5.- Pili... oso motor polita dauka, urdin-urdina.
- 6.- Yolanda.... bi maskota ditu: katu bat eta txakur bat.

7.- Kristina.... ezkondata dago eta bere senarra bizkaitarra da.

  Adostu erantzunak lagun batekin.

3.2. Plan desberdinak   

Mendiko kanpina

Asteburu honetan mendian dagoen kanpin batera joango zara. Etxean gauza asko dituzu, baina kanpinerako batzuk behar dituzu. Galdetu gelako ikaskideei eta eskatu falta zaizkizun gauzak. Apuntatu nork dau(z)kan. Azkar galdetu eta ea lehenaren behar duzun guztia aurkitzen!

Zer daukazu?	Zer behar duzu?	Nork dauka?
bainujantzia	kanpin-denda	
auto dotorea	kantimplora	
bainu-txanoa	motxila	

Adibidez:

- ◆ **Zuk zer daukazu?**
- ★ **Nik kantimplora daukat.**
- ◆ **Oso ondo, utziko didazu? Nik bainujantzia daukat.**

Hondartza

Asteburu honetan hondartzara joango zara. Etxean gauza asko dituzu, baina hondartzarako batzuk behar dituzu. Galdetu gelako ikaskideei eta eskatu falta zaizkizun gauzak. Apuntatu nork dau(z)kan. Azkar galdetu eta ea lehenaren behar duzun guztia aurkitzen!

Zer daukazu?	Zer behar duzu?	Nork dauka?
kantimplora	bainujantzia	
trajea eta soinekoa	eguzkitarako krema	
toalla	txankletak	

Adibidez:

- ◆ **Zuk zer daukazu?**
- ★ **Nik txankletak dauzkat.**
- ◆ **Oso ondo, utziko dizkidazu? Nik toalla daukat.**

★ **Ez dut behar, eskerrik asko.**

Glamour handiko festa

Asteburu honetan glamour handiko festa batera joango zara. Etxean gauza asko dituzu, baina festarako batzuk behar dituzu. Galdetu gelako ikaskideei eta eskatu falta zaizkizun gauzak. Apuntatu nork dau(z)kan. Azkar galdetu eta ea lehena zaren behar duzun guztia aurkitzen!

Zer daukazu?	Zer behar duzu?	Nork dauka?
motxila	trajea/soinekoa	
txankletak	auto dotorea	
txabusina	zapata dotoreak	

Adibidez:

- ◆ **Zuk zer daukazu?**
- ★ **Nik txabusina daukat.**
- ◆ **Ez dut behar, eskerrik asko. Nik motxila daukat.**
- ★ **Ederki! Utziko didazu?**

Bainuetxea

Asteburu honetan bainuetxe batera joango zara. Etxean gauza asko dituzu, baina bainuetxerako batzuk behar dituzu. Galdetu gelako ikaskideei eta eskatu falta zaizkizun gauzak. Apuntatu nork dau(z)kan. Azkar galdetu eta ea lehena zaren behar duzun guztia aurkitzen!

Zer daukazu?	Zer behar duzu?	Nork dauka?
kanpin-denda	txabusina	
eguzkitarako krema	bainu-txanoa	
zapata dotoreak	toalla	

Adibidez:

- ◆ **Zuk zer daukazu?**
- ★ **Nik bainu-txanoa daukat.**
- ◆ **Oso ondo, utziko didazu? Nik kanpin-denda daukat.**

★ Ez dut behar, eskerrik asko.

Asteburu honetan _____ batera joango zara. Etxean gauza asko dituzu, baina _____ batzuk behar dituzu. Galdetu gelako ikaskideei eta eskatu falta zaizkizun gauzak. Apuntatu nork dau(z)kan. Azkar galdetu eta eta lehena zaren behar duzun guztia aurkitzen!

Zer daukazu?	Zer behar duzu?	Nork dauka?

Adibidez:

- ◆ Zuk zer daukazu?
- ★ Nik _____ daukat.
- ◆ Oso ondo, utziko didazu? Nik _____ daukat.
- ★ Ez dut behar, eskerrik asko.